

# BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 1802

*EBAZPENA, 2022ko apirilaren 1ekoa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearen 2022ko martxoaren 30eko Akordioa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legeari dagokiona.*

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusitako akordioa egin ondoren, eta artikuluko horren c) letran ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearen akordio bat, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legeari dagokiona (ikus eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 1a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,  
SABINO TORRE DÍEZ.

2022ko apirilaren 27a, asteazkena

## ERANSKINA

AKORDIOA, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzak Batzordearena, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurri buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legeari dagokiona.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzak Batzordeak honako akordio hau egin du:

I.– Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoak osatutako lantaldeak aldeztetik negoziatzen jardun du desadostasunak aztertu eta konponbiderako proposamenak egiteko COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurri buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen zenbait artikuluren gainean (8, 14, 15, 21, 23 eta 24. artikulua eta 26.etik 34.era bitartekoak). Bada, negoziazio horiekin bat etorri, bi aldeek desadostasunak konpontuz jotzen dituzte, konpromiso eta kontsiderazio hauei jarraituz:

a) 8, 14, 15, 21, 23 eta 24. artikuluetan eta 26.etik 34.era bitartekoetan, EAEko osasun-agintariek osasun publikoa babesteko eta hura okertzea edo narriatzea prebenitzeko har ditzaketen neurriak arautzen dira, betiere Osasun publikoaren arloko neurri berezietan buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoak xedatutako esparruaren barruan, eta arauak berariaz ezartzen dutenari jarraituz. Arauak barne-osasunaren arloko eskumen autonomikoetan oinarritzen dira, eta, beraz, eragindako eskubideei dagokien arloa arautzen dute; baina ez da inola ere ulertu behar eragindako oinarritzko eskubideak eta askatasunak garatzen dituztenik, ez eta horiei mugak ezartzen dizkietenik ere; izan ere, arlo horiek lege organikoari dagozkio, Konstituzioan xedatutakoaren arabera.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-agintariek 8, 14, 15, 21, 23 eta 24. artikuluetan eta 26.etik 34.era bitartekoetan bildutako neurriak aplikatuko dituzte, une oro lege organikoek horri buruz xedatzen dutenaren babesean, bai eta ezarritako jurisprudentziak horren interpretazioari buruz xedatzen dutenaren babesean ere, betiere errespetatuz osasunaren oinarrien eta koordinazio orokorraren gainean Estatuak dituen eskumenak, proportzionaltasun-printzipioak, Osasunaren apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren 28. artikuluan aurreikusitako gainerako printzipioak eta Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorraren 5.2 artikuluan ezarritako borondatezkotasun-printzipioa, eta, hala dagokionean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.6 eta 10.8 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorri.

c) Ez dira konpontuz jotzen, ordea, 14. artikuluko 3. apartatuaren in fine tartekiari buruz dauden desadostasunak; honela dio tarteki horrek: «arau hori bera txertoa jartzeko betebeharraren ondorioetarako aplikatuko da».

II.– Lortutako akordioa aintzat hartuta, bi aldeak ados daude desadostasunak partez konpondu direla.

III.– Akordio hau Konstituzio Auzitegiari jakinaraztea, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan xedatutako ondorioetarako, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Lurralde Politikako ministroa,  
ISABEL RODRÍGUEZ GARCÍA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.